


BALEIKE

100 pta.

52. zenb.



El acuerdo del siglo XXI
XXI. mendeko
akordioa
L'accord du XXI siècle



euskarari

- Oxford-erako proiektua berriz aztertuko da
 - Nekazaritza tradizionala aztergai Laian
 - Agustin Zubimendi, Gabon koruaz
-
- **Mendia behera, errepidea itsasora**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528



Itzurun Zuhaltz bidea, 1
Tel: 943 86 24 30/ 86 03 15
ZUMAI A

agustin
HARRAKINA

Bertako haragia eta geuk egindako txarkuteria
Aurrez prestatuko jakiak

konfiantza osokoak

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzardea

Xabier Azkue
Antxoka Agirre
Uxua Ostolaza
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzardea

Antxoka Agirre
Esti Esteibar
Ane Osa
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martínez
Joseba Ossa
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Ane Osa
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Juan Luis
Romatet, Miriam
Romatet, Jon Manzi-
sidor, Josu eta Arantxa,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Jon Manzísidor

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,
Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri
Hilargi eta konpainia

Publizitatea

(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Hurrengo AzalpenArte



Josu Waliño

Duela gutxi, egunkari batean egin zioten elkarrizketan Jon Alonso Fourcadek honela zioen: "Egungo artean zaila da ona eta adar jotzea bereiztea". Ordura arte ez nuen ezagutzen Jon Alonso Fourcade, baina berak esanarekin guztiz bat nator.

Betidanik izan ditut gogoko marrazketa, eskultura, argazkilaritza... generikoki artetzat ezagutzen ditugun horiek. Badakit artea bere horretan ulertzea ezinezkoa dela, eta zabaltasunetik begiratu ezean askotan zaila dela ulertzea, baina geroz eta zailagoa egiten zait mundu horretan egiten diren lan askoren arrazoia ulertzea. Agian ignorantzia da. Agian estetika edo esanahi soila begiratzen dudalako izango da, beste ikuspunturik bilatu gabe. Baina ingurura begiratu, jendearen aldetik ere antzeko jarrera somatzen dut. Badakit artelan batek ezer esaten ez badizu, inork ezin dizula azaldu, baina geroz eta gehiago botatzen dut faltan egilearen azalpena, artistak esan nahi zuena ulertzen lagunduko didan azken keinua.

Aipagarria iruditzen zait Zumaiako Arte Taldeak egiten duen lana, urteetan erakutsi duten pazientzia hori gabe ezingo genuelako Zumaian arteari buruzko inpresiorik atera. Horregatik hemen esana inora ez doan inpresio bat bezala ulertzea nahi nuke, arteak sortu behar dituen inpresio guztien arteko bat gehiago. Zuen lanaren zain nauzue, gogoz gainera.


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 02 50	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiko Udala



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



Uranga Jaunari erantzuna

Duela gutxi, irakurri genuen Baleike aldizkaria eta benetan poztu ginen. Bertan "Uranga jaunak" goraiatzat zuen Zesta Punta Eskolaren lana eta pilotarien arrakasta hau ez da nolana hikoia, zeren gure pilotariak ezagunak dira Hegoalde eta Iparraldean. Baina goazen harira, Uranga jaunak proposatzen zuena- rekin poztu egin baikinen.

Zumaiako frontoiaren erabilpenerako bi soluzio proposatzen zituen:

- 1.- Frontoi berria egitea.
- 2.- Pilotariak beste frontoi batzuetara eramatea.

Zer esanik ez dago 1. irtenbidea dela onena, zeren gure pilotarien arrakasta ez da lortzen lanik gabe, eta zorionez gure pilotariak lanerako grina handia daukate.

Zumaiako frontoian entrenatzen dira normalean gaztetxoak, hau da, "Kadete" mailaraino eta besteak "Jubenil, Junior eta Senior" mailakoek beste frontoi batzuetara joan beharra daukate, eta hau sarritan oso gogorra egiten da, zeren etxera etorri orduko gaueko hamaikak eta gehiago izaten dira, eta noski

biharamunean lanera edota eskolara joateko goizean goiz jaiki beharra, etab... Eta hau azkenean oso nekagarria izaten da edonorentzat.

Hau dena konponduko litzateke frontoi luzea Zumaian egonez gero. Eta ez bakarrik hau, frontoi luzea egonez gero bertan jokatuko lirateke partiduak, honek esan nahi duena- rekin: etxeko afizioa, norberaren frontoia, etab. Gainera txikiagoek askoz gehiago ikasteko aukera izango lukete, handiak ikusita. Beste abantaila pila bat ere baditu: gurasoen lasaitasuna...

Beno, lehenengo soluzioaren abantailak begi bistan daudela uste dugu, zeren bigarren irtenbidea aipatzean ea nola moldatu behar duen eskolak adin desberdinetako 46 pilotari mugitzeko. Horrek gainera erantzukizun desberdin asko ditu, hau da, eskola, lana, etab. eta zenbat denbora? eta nora?

Esku-pilota izanez gero herriko edozein frontoik balioko luke, baina zesta puntan aritzeko berriz frontoi asko ez daude, eta Zumaian zorionez afizioa sakona dago eta gure ustez merezi du kirol hau sendotzea, geurea delako eta oso polita delako.

Horregatik eskatuko genioke "Uranga jaunari", baita Zumaiako herriari ere, frontoi berriaren apostua egiten laguntzeko.

Mila esker.

ZUMAIAKO ZESTA PUNTA ESKOLAKO BATZORDEA

3. Munduaren aldeko tonbola

Abenduaren 28, 29, 30erako tonbola bat antolatzen ari gara eta etxean dituzuen liburu, pitxi, jostailu, eskulan eta antzekoak eman nahi izanez gero benetan eskertuko genuke zuen laguntza. Guztia GURUTZ GORRIAN jasoko dugu Abenduaren 22a baino lehen.

PARROKIKO GAZTE ELKARTEKO HIRUGARREN MUNDUKO TALDEA

7
MARES
7 MARES IZOZTUAK

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

BASADI

**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

ANA
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521



Edur Osa
Olentzero

*Ume gehienak, garai honetan
edukitzen dute mauka
Olentzeroren eskutik jasoz
izugarriko zakuka
horrelako gauza eder bati
umeez nola ba uka
urtero opariak banatzen
meritu gutxi ez dauka.*

*Abenduaren hogeitalauan
hainbat leihotatik sartzen
ume guztien amets gehienak
ahal diren ondoen betetzen
hainbeste urte pasata ditu
opari pila banatzen
jada honezkero hasi beharko
jubilazioan pentsatzen.*



Luis M. Aristegi

Garai berrien itxaropenez

Oporrak urruti xamar pasa ondoren etxera itzultzean, denbora gutxian nere ingurukoaren artean giroa asko aldatu dela konturatzen naiz. Lehengo giro itxi eta ezkorren ordez, itxaropenez beteriko aro berri baten ilusioa somatzen da.

Hauteskundeetako emaitzek ere badute horretan zerikusirik. Zumaiari dagokionez, boto emaileen %71'5ak abertzale bozkatu du, eta %75ak Lizarra-Garaziko alderdien alde.

Baina, agian, zailena orain dator. Abertzale esparruko indarren artean elkarlanerako eremu amankomunak sortu eta indartzea beharrezkoa da. Inoren kontra joan gabe, inor baztertu gabe, baina horrenbeste aipatzen den demokraziak agintzen duenez, gehiengoaren nahia errespetatu eta betetzeari lehentasuna emanaz. Horretarako denok izango dugu pausoak eman beharra. Urteetan zehar sortutako inertziak, elkarren kontrako aurriritziak e.a. gaindituz joan beharko dugu, elkartzen gaituenari lehentasuna emanaz eta ez zatitzen gaituenari.

Azken finean, bizi dugun giro itxaropentsu hau zapuztu ez dadin eta goi mailako politikagintza desbideratu edo moteldu ez dadin, garantiarik onena herriz herriko eta tokian tokiko ekimen bateratuan sustraitutako indarra eta bultzada izango dira.

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45 Tel. 861485



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2 Tel. 862206

AZKUE

Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9 Tel. 862441



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

Oxford-eko proiektua berriz aztertuko da

Azken boladan ahots asko zabaldu da Arrangoleta eta Oxford-en egin behar diren proiektuen inguruan. Dakizuen bezala, bi leku horietan etxebizitza berriak egin nahi dira. Arrangoletako ikastola zaharraren kasuan, eraikuntza bota eta etxebizitzak eraikitzeko asmoa dago eta badirudi ekimen honek aurrera jotzeko asmoa duela.

Oxford edo Profesional Zaharraren kasuan berriz, gauzak ez daude hain garbi. Hasiera batean, Udalak eraikin horretako barnealdea berritu eta lehenengo pisutik gora etxebizitzak egiteko erabakia hartu zuen. Honekin batera, beheko solairuan, egun hainbat ekitaldi burutzeko erabiltzen den aretoa berregokituko litzateke, baina jarduera askotarako areto bezala jarraitzeko asmoarekin.

Baina Oxford-en egin beharreko egitasmo hau momentuz bertan behera geratu da, izan ere herritar asko kexatu da xede honen aurrean.

Baleiken bere garaian argitaratu zen bezala, zumaier talde zabal batek bere kezka azaldu zuen Udalak Oxford bezalako eraikuntza publiko bat pribatizatu nahi zuelako. Hauen ustez, "lokal publikoen premia egonik ez zaigu egokia iruditzen Udalaren esku dagoen eraikuntza hau saltzea".

Talde honen aburuz, "eraikuntza horrek kultura, ongizate, aisia edo osasun erabilpenetarako egokiak izan daitezke, kontuan hartzen badugu kokapena eta Zumaian zeregin horiek betetzeko dauden eraikuntzak ez direla egokienak (Foronda eta Osasun Zentrua adibidez). Iritzi hau gainera Arrangoletaren kasurako ere baliagarria egiten dute taldekook.

Udalak, arazo hau ikusita, momentuz behintzat Oxfordeko egitasmoa geldirik uztea erabaki du eta egon daitezkeen irtenbide ezberdinak sakonago aztertzeko konpromisua hartu du. ◀



Ikastetxe berria 18an inauguratuko da

Hil honen 18an izango da Zumaia Herri Eskolaren eraikin berriaren inaugurazio ofiziala. Bertako arduradunekin batera herriko eta Jaurilaritzako agintariak bertan bilduko dira eta irailetik hasita dagoeneko martxan dagoen arren, aipatutako ostiral horretan eguerdiko hamabietan jasoko du ikastetxeak falta zuen "bedeinkazioa". Bestelako inaugurazio ekitaldiak ere egingo dira, ordea. Izan ere, hilaren 18 eta 19rako hainbat ekitaldi antolatuko dira. Egun hauetan, haur eta gaztetxoentzako jolas eta joko ugari eskaintzeaz gain, zumaier guztiei ikastetxe berria barrutik ezagutzeko aukera eman nahi zaie.

Horretarako bi txanda prestatu dira. Ostiralean, bazkalondotik hasita, sektore desberdinetako talde eta elkarteak izango dira gidari baten laguntzaz ikastetxeko txoko guztiak ikusteko parada izango dutenak. Larunbat goizean, berriz, atea irekita egongo dira nahi duen orok zernahi ikus dezan.

Amaitzeko, eta jatordurik gabeko ospakizunik egiten ez dakigunez, HERRI BAZKARI bat egingo da larunbat eguerdirako. Gimnasioan izango da seguruena, eta bertan bilduko dira irakasle, guraso eta baita ikasle ohiak ere. On egin!



balezulo
importaturiko eropa eta artisautza

Basadi, 3

CORO PRIETO
Esteticista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoia 2/g

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Pinturak eta eskulturak ikusgai Laia museoan

Dora Salazar eta
Arantxa Gereño
artistek jarri dituzte
bertan
beren lanak

Azaroaren 21ean inauguratu zen Laia Museoan Dora Salazar eta Arantxa Gereño artisten erakusketak. Lehenengoa eskultorea da eta bilduma honetan, hainbat eskulturez gain, marraztutako liburu original batzuk ere aurkeztu ditu. Altsasun jaioa 1963. urtean, Dora Salazarrek Leioako Arte Ederretako Fakultatean egin zituen bere ikasketak eta orain dela zortzi urtetik hona, erakusketa asko antolatu ditu han eta hemen. Indibidualki nahiz kolektiboki egin du hau, eta honez gain, bilduma publiko asko ditu.

Kalean ere bere makina bat eskultura ikus ditzakegu. Besteak beste, Zarauzko malekoian hiru eskultura ikus ditzakegu itsasoari begira daudenak eta hiritik sortzen direnak



izate mekaniko eta organikoa nahastuz. Gasteizen, Iruñean eta Errioxan ere badaude bere pieza batzuk.

Unibertsitatean hirugarren mailan zegoela hasi zen bere lehenengo lanak egiten. Hasieran, objetuekin, gehiegi pentsatu gabe, baina denbora aurrera joan ahala, materialak aldatzen joan da eta goma, pasta eta silikonarekin gehiago aritzen da. Bere hitzetan, "nire artea nahiko klasikoa da, material aldetik premisa nahiko tradizionalak mantentzen ditut". Inspirazioari dagokionez ez da ezertan bereziki inspiratzen, "momentuoro gauza ezberdinek ematen didate hori, baina ez ezer konkretuak".

Bestalde, Arantxa Gereño erakusketa honetan hamalau artelan ditu.

Akuarelak, pastelez eginiko kuadroak dira eta berak aitortu duen bezala, "obrak berak gidatzen nau, intuitiboki pintatzen dut, ez da aurreikusitako ezer eta horrela izatea gustatzen zait".

Pare bat hilabetez zabalik izango da eskultura eta pintura erakusketa hau Laia Museoan. Orduategia, astegunetan goizeko 10etatik eguerdiko 1:30etara eta arratsaldean, 3retatik 6:30etara. Asteburuetan berriz, arratsaldeko 4:30etatik iluntzeko 8ak bitartera arte. Museo honek era honetako ekimen bat martxan jartzen duen bigarren aldia da. ◀



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



Erribera kalea, 2
Tel. 861125

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3 Tel/Faxa: 143453

Gaikako bilketa sustatzeko kanpaina burutzen ari dira Urola-Kostan

Eskualdeko 1000 merkatari eta ostalariei zuzenduriko kanpaina da Arazi burutzen ari dena

Urola-Kosta eskualdean zaborren gaikako bilketak gero eta arrakasta handiagoa du. Biztanleok, orokorrean badakigu zer egin behar dugun geure zaborrekin, baina oraindik Europako beste herrialdeekiko oso urrun gaude. Horregatik, kanpainak sektore konkretuetara zuzendu behar direla pentsatu da, bakoitzaren arazoei irtenbide zehatzak eskaintzeko. Horrela, ingurugiro zerbitzuak eskaintzen dituen Arazi enpresa, merkatari eta ostalariei zuzenduriko kanpaina bat burutzen ari da, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Urola-Kosta Udal Elkar-tearen laguntzarekin, gure eskualdean pisu handia duen sektorea baita.

Orio, Aia, Zarutz, Getaria eta Zumaiako 1000 merkatari eta ostalariekin biltzen ari dira, beira, papera, kartoia, pilak eta olioia behar bezala gestionatzeko dituzten arazoak aztertu eta irtenbide bat emateko asmoarekin.

Beira, papera, kartoia eta pilen gaikako bilketa nahiko ezaguna da gaur egun, baina olioarena apenas zabaldu den gure ostalarien artean, eta ezin dugu ahaztu gure herrian bereziki indartsua dela sektore hau. Harraskatik behera botatzen dugun olioak desoreka sortzen du gure ibaietan, elikagai gehiegi aurkitzen baitute bizidunek. Gainera, olioia

urazalean gelditzen da eta argia eta oxigenoa ez dira behar bezala sartzen. Ondorioz, bertako bizidunak hil egin daitezke. Beirarekin egiten den bezala, olioia ere gaika bildu daiteke, gaur egun horretaz arduratzen diren enpresak baitaude. Olio horrekin kosmetikoak, xaboiak, pinturak e.a. egiten dituzte gero.

Norbaitek informazio gehiago nahi badu, edota hautako enpresa baten telefono zenbakia, Ingurugiro Tailer-Eskolako ateak zabalik ditu (Santixo ibilbidea, 46), edo deitu telefono honetara: 943 86 25 76. ◀

Lehenengo saria



Bigarren saria



Zumaiako Gazteen Argazki Lehiaketaren irabazleak

Kale Hezitzaileek antolatu zuten lehiaketa 'Zumaiako Gazteria' gaitzat jarrita, eta 13-18 urte bitarteko 42 hirukotek eman zuten izena. Azaroaren 4an hamabi argazkiko karrete bat eman zitzaien bi orduren barruan ateratzeko, eta gero beste hamabiko bat asteburuan zehar ateratzeko. Azkenik talde bakoitzak launa argazki aukeratu zituen lehiaketara aurkezteko.

Jorge De la Flor, Ibai Iburguren eta Gorka Esnalek, 14 urtekoak hirurak, aurkezturiko argazki bat izan da 20.000 pta.ko lehenengo saria eraman duena; eta Xabi Egaña, Iñaki Lopetegui eta Hilargi Linazisoro, 18 eta 17 urtekoak, aurkezturiko batek eraman ditu 2. sariari zegozkion 10.000 pezetak.

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

Zumaiako lorazainen aurtengo balantzea

10.000 lore eta 177 zuhaitz berri aldatu dituzte

Duela urte pare batetik hona beste martxa bat ikusten zaie Zumaiako lorategiei. Lora exotikoak ezarri dituzte betiko arbusto haien ordez, eta beti daude loratan, beti txukun-txukun jarrita. Azpeitiako 'Kimu bat' lorazaintzarako enpresaren lana izan da hobekuntza guzti hauek ekarri dituen. Aurten egindakoen txostena eman digute Azpeitiarrek, eta hona hemen alderdi aipagarrienak.

Ohiko landaketa eta mantenu lanez haruntzago Zuloaga eta Amaia Plazetako eta Forondako lorategien berregituratzea, eta Herri Eskola, 3. Sektorea eta Anbulategian lorategi berriak sortzea izan dira ardatz nagusiak.

Berebat, lurra berritu dute lorategietan, urte sasoi bakoitzean loreak aldatu, guztira 10.000 baino gehiago, eta jardinerari berriak jarri dituzte Udaletxean, Aita-Marin eta Mollako faroletan.

Zuhaitzen landaketari dagokionean, 177 landatu dira guztira. Besteak beste, 23 astigar, 27 makal, 14 tulipero eta 18 urki Herri Eskolaren inguruetan; 22 adelfa eta 30 astigar gorri 3. Sektorean; 10 Aligustrea, 6 Carpinus Betulus Fastigiata eta 6 erramu Anbulategian; eta 2 platanero, agin 1 eta erramu 1 Zuloaga plazan.

Guztira 9 milioi gastatu dira lorazaintza lan hauetan, gastu aipaga-



rrienak ekarri dituztenak lorategi berrien sorrera, Herri Eskolarenak 2.872.276 pzta. eta 3. Sektorearenak 1.361.260 pzta, sasoiko loreen aldaketa eta mantenua, 1.800.000 pzta., eta Forondako lorategiaren berregituraketa, 429.954 pzta., izan direlarik. ◀

Txomin Agirrerri plaka jarri zioten Maria eta Jose Ikastetxean

Euskaltzaindiko kideak present izan ziren ekitaldian

Jaiotzez Ondarrukoa izan arren erdi zumaiarra dugu idazle haundi hau, bizitza erdia hemen egin baitzuen eta Maria eta Jose ikastetxean erdi etxekoa ere badute, bertako kaperau izan baitzen. Honela, plaka bat ezarri nahi izan diote, eta omenaldi txiki bat egin zitzaion azaroaren 19an ospatu zen ekitaldian.

Jean Haritschelar buru zutela Euskaltzaindiako Literatur Batzordea ere izan zen ekitaldi honetan. Ikastetxeko sarreran plaka desestali ondoren auresku bat eskaini zitzaion txistulari

eta dantzariekin, eta honen ondotik Ana Toledo Euskaltzainak Txomin Agirrerriren lana eta irudia gogoratu zituen: Agirre, Azkue, Kanpion, Manterola... hauen artean kokatu zuen Ana Toledok Txomin Agirre, hau da, bigarren karlistadaren ondoren abertzaletasunaren sorreraren giroan sorturiko euskaltzale handien artean, eta "Añamendiko lorea" (1897) lanarekin bera jo zuen lehen euskal elaberrigiletzat, aurretik argitaraturiko guztiak lan didaktikoak edo erlijio-tsua izan zirela esplikatuaz.



Ekitaldia bukatzeko, Jon Arretxek idazlearen inguruan egindako liburuxka (ikastetxeak utzitako argazkiekin osatua) banatu zen bertara azaldu zirenen artean. Ondoren Euskaltzaindiakoek herriko jatetxe batean bazkaldu eta herria ezagutzeko aprobetxatu zuten arratsaldea. ◀

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antena - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CANAL+

CANAL DIGITAL



ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu sailmenta
zerbitzu teknikoa
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Baltasar Etxabe z/g

Tel. 861175
Faxa: 860550

Berrehun metro errepide jan ditu mendiak

Gertatu da, berriz ere. Azkenaldian harri solteren batzuk besterik ez ziren erortzen, baina urtebeteko "treguaren" ondoren mendiak errepide puska ederra jan du, eta ondorioz, beste puska baterako itxita egongo da Getarirako bidea.

Benetan larria izan zen abenduaren lehen goizaldean gertatutakoa. Lur-jausia baino gehiago izan zen, mendia behera etorri baitzen, bere zuhaitz, zuhaiska, zelai eta guzti. Ia 200 metroko zati batean, justu San Prudentzioko bidegurutzera iritsi baino lehenagoko tartean, errepidea desagertu egin da; hobeto esan, itsasora, haitz artera eraman du mendiak. Zorionez, eguna argitu baino lehen gertatu izanak bidean inor ez harrapatzea ekarri zuen.

Ikusgarria da Kaminero-etxetik aurrera joan eta bat-batean bidea amaitu eta mendia besterik ez ikustea.



Behera begiratuta haitz artean ikus daitezke errepide puskak, beren marra zuri eta guzti. Tonak eta tonak erori dira eta hasiera batean behintzat, zenbait hilabetetan Getarirako bidea itxita egongo dela dirudi.

Berriz ere, Meaga aldera edota autopistara jo beharko dugu zumaiarrok, eta horrek denbora edota gastu gehiago ekarriko ditu. Meagatik Zarautzerako bidean, gainera, obretan daude eta ikusi egin beharko da zenbat trafiko pilatzen den.

1997ko apirilean egindako elkarrizketan, Rikardo Peña alkateak Karakas aldetik Meagarako bidea egiteko aukera aztertzen ari zirela aipatu zigun. Arazoak besterik ez dakartzan gune hau saihesteko, beste aukera bat Nekazaturismoko etxetik Askizu alderako bidea egitea izan liteke, eta horrela kamioi eta ibilgailu astunak salbu, bestelakoek Getarira joateko beste bide bat izango lukete. Nolanahi ere, zerbait egin beharko da, ehundaka milioi gastatuta ere errepide zati hori erabat ondo jartzea ezinezkoa izango da eta.



Eskubiderik garrantzitsuena, Familia

Joan den azaroaren 21ean Euskal Autonomia Erkidegoko 8 eta 11 urte bitarteko haurrek hauteskundeak izan zituzten. UNICEFek antolatutako "Haurren Ahotsa" kanpainaren bitartez 12 eskubideren artean beren ustez garrantzitsuena zena hautatu behar zuten haurrek, eta Zumaiako emaitzak honakoak izan ziren: Familiak 88 boto, Bakeak 61, Elkartasunak 26, Osasunak 23, Nortasunak 20, Babesak 12, Berdintasunak 10, Jolasak 6, Ongizateak 5, Parte-hartzeak 2, Hezkuntzak 2 eta Haurrak aurretik boto 1. Bi boto txuri ere egon ziren, eta guztira 258 neska-mutil izan ziren bozkatzera udaletxera bertaratu zirenak.

expert 
ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezarreta, 6 Tel. 861078



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Aspertzeko astirik ez Laia museoan

Museo batek bisitariak mendian bueltaka izerdi patsetan jarri, txokolate bero batekin agurtu, edota azterketatxo bat gainditzea eskatzen diela entzungo bagenu, Ameriketako ero baten ideia bitxia izan dela pentsatuko genuke. Eta bitxia bada gero, baina Laia Museoan, Zumaian bertan, aurki daiteke gisa horretako eskaintza, eta ez da erokeria bat. Laia museoak eta Arazi ingurugiro taldeak eskaintza berezi bat prestatu dute nekazaritza tradizionala aztertzeke, eta gu bertan izan ginen estreineko egunean.



Goizeko hamar t'erditan nuen jarrita zita Arazi taldeko Juanjo eta Izaskunekin, Laian bertan. Irungo Txingudi Institututik etorritako DBHko 4. mailako 42 gazterekin egokitu zitzaizaien euren esperientzia berri hau estreinatzea eta guk ez genuen detailerik galdu nahi. Baina, puntuan iritsi ginen arren –gutxi gorabehera–, jadanik mahaietan eserita zeuden Juanjoren lehen azalpenak entzuten. Lekua hartzen nuen bitartean, arbel batean goizaldeko egitaraua ikusi nuen: “Aurkezpena. Lanabesen historia. Laia museoari bisita. Atsedena. Orientazioa. Txokolatea”. “Txokolatea!” pentsatu nuen nik, “egiten duen hotzarekin, primeran!”.

“Hel diezaiogun lehenbailehen hariari”. Nekazaritzaren sorrerari buruzko sarreratxo bat egin ondoren, Juanjok nekazaritza tradizionala –beraiek artisau nekazaritza esaten diote– eta industri nekazaritzaren

artearen bereizteko eskatu zien bertan ziren neska-mutikoei:

– “Adibidez, zein ezberdintasun dago era tradizionalan eta negutegietan hazitako tomateen artean? –Juanjoren galdera–. Erantzunik ez hasiera batean.

– “Ba, negutegian gehiago produzitzen direla eta ederragoak direla itxuraz –ausartu da bat.

“Besabea, goldea, area, aitzurra, ola, eskuarea, lera... batzuk bai ezagunak, baina beste batzuk zeintzu diren asmatzeko..., a ze tomatea!”

– “Ederragoak dira negutegikoak, itxuraz perfektuagoak, denak berdinak, baina tomateak benetan horrelakoak al dira? Ez al dira forma

ezberdinekoak izaten? –galdetzen du berriro Juanjok.

Naturan dagoen itxura aniztasuna –baita tomate itxusiak ere– galdu egiten da industri nekazaritzan, estandarizazio bat gertatzen delako. Baina akaso hori ez da txarra. Juanjok aurrera dihardu bere galdeketarekin, bi nekazaritza moten ezaugarriak aztertuz eta bakoitzaren alde onak eta txarrak azalduz, azken finean ikasleek erabaki bat hartzeko argudioak izan ditzaten.

– “Artisau nekazaritzak bereziki zaintzen ditu fruituak, baina bestalde garestiagoak dira. Egia da ingurugiroarekiko begirune handiagoa duela, baina baita askoz ere fruitu gutxiago produzitzen dituela”, azaltzen du Juanjok.

Tomateak eta baratzetako beste fruituak alde batera utzi, eta lanabesak aztertzeke garaia iritsi da. Mahaietatik jaiki eta hortxe goaz

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

guztiok Izaskunekin museoaren aurrean dauden lanabes ezberdinak aztertzeraz. Besabea, goldea, area, aitzurra, ola, eskuarea, lera... batzuk bai ezagunak, baina beste batzuk zeintzuk diren asmatzeko... a ze tomatea! -ezin tomateak burutik kendu-.

–“Ia ba, hemen ikusten dituzuen trenan hauen artean, zein da goldea?” galdetu du Izaskunek.

– “Hemen ezkerretara dagoen hau” bizkor erantzun batek. Ondo, asmatu du.

– “Eta lera? –berriro Izaskunek.

– “Horixe bera!” –bota du gelako bihurrienak inork erantzunik ez zuela ikustean. Barre algarak.

Bakoitzari izen egokia jarri ahala, Izaskunek zertarako erabiltzen den

azaltzen die, gaur egungo ordezkoa ere gogoratuz.

Amaitu dugu lanabesekin. Orain Museoari bisitaldia. Bertan, Euskal Herriko 12 artisautza mota azaltzen dira, gehienok dakizuen bezala: txakolina, gozogintza, arrantza, ardo, oihaigintza... guztiak gure baserrietako bizimodu tradizionalari lotuak. Bisitaldia amaitu eta atsedena. Beharrezko atsedena, ondoren Juanjok eta Izaskunek orientazio joko bat prestatu baitiete.

Orientazio jokoak amaitzeko

Brujulak eta mapak ikusi orduko zeharo aztoratu dira. Orientazio joko bat egin behar dugula eta burua galdu du batek baino gehiagok. Orain arte nahikoa txintxo portatu dira, baina jokoak odola piztu die. Juanjo

azalpenak ematen ari zaie, taldeka. Ibilbide bat osatu behar dute Karakas baserri aldera abiatu eta San Mieleko bidetik jaitsi. Bidean seinale batzuk aurkituko dituzte, zenbaki eta koordenada batekin. Koordenada horiei jarraituz, egunean zehar ikusitako gaiei

buruzko galderak dituen fitxa bat topatu beharko dute, eta orri batean erantzunak idatzi. Fitxa guztiak aurkitutakoan, Laiara bueltatu eta erantzunak zuzenak diren edo ez ikusi. “Ni boyscouta nauk eta ez diat hainbeste azalpenik behar” batek. “Eta galtzen bagara zer?” besteak. “Hi, herri aldera joaten bagara, zer? bihurrienak lagunei. Kontuak kontu, hortxe abiatu dira taldeak, bakoitzari abiatzen den ordua hartuz –rallietan bezala-, batzuk besteak baino gogotsuago, baina guztiak amaieran txokolatea egongo den esperantza-ekin –baita neu ere!-.

Hasi dira taldeak iristen. Lehenengoak ongi, fitxa guztiak aurkitu dituzte eta erantzunak ongi dauden ari dira ikusten. Bigarrenak ere, arazorik gabe. Hortik aurrera, denetik. “Brujularekin ez dugu asmatu”, batek; “hirugarren fitxa poste baten puntan zintzilikatuturik aurkitu dugu”, besteak... isil-isilik eta bestaldera begira gelako bihurriena.

Komeriak alde batera utzita, denak osorik itzuli dira eta esku artean dute jadanik txokolate gozoa. Izerdi apur bat atera dute, baina behingoz museo batera joan eta ez direla aspertu esateko moduan dira. Neu lekuko.

◀ GORKA ZABALETA



Galdona

 burdindegia
 Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 –143346
 Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

 TABERNA
 Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

KAFETEGIA
GAROA
 JATETXEA
 TXOMIN AGIRRE KAIA
 TEL. 943 86 21 81

Gure txokoa
 • taberna •
 kaxuelita eta pintxo ezberdinak
 San Pedro kalea

English School
Harvest
 San Jose, 11 bis Tel. 143334

Ibon Esteibar
 Tel. 943 86 19 25

 MASAJE OROKORRA
 KIROL MASAJEA
 HANKETAKO ERREFLEXOTERAPIA
 OSTEOPATIA

Hator, hator Gabon korura...

...Gustura hartuko zaituzte, jende faltan ez badira ere. Izan ere, 150 lagun inguru biltzen dira urtero. 1945an Andazarretako erietxean, hau da, biriketako gaitzaren sendalekuan zeuden 3 gazte zumaiar bisitatzera kantuan joan zirenetik, urterokoa dugu Gabon koruaren emanaldia. Caritasentzat da bildutako dirua eta urtetik urtera diru kopurua handitzen doa; iaz, esate batera, 1.200.000 pezeta bildu ziren. Sortu zenetik 6 zuzendari izan ditu eta horietako azkenak 15 urte daramatza lan hori egiten. Agustin Zubimendi da bera. Berarekin hitzegin dugu eta Gabon koruaren inguruan aritzeaz gain, bere musika ibilbidea ezagutzeko aukera ere izan dugu.



❑ Nola harrapatu zaitu aurten abenduak?

Oso ondo eta osasuntsu. Urrian oporrak izan baititut eta indarberrituta hasi naiz.

❑ Nola bizitzen duzu urte sasoi hau?

Lanaz lepo. Urtean zehar bi koru zuzentzen baditut, orain hirugarrena martxan dago eta batzutan denborarekin estu samar. Hala ere, nola esperientzia badudan beste urteetatik, neure denbora antolatu eta...

❑ Zer da zuretzat Gabon korua, beste koru bat baino ez ala badu zerbait berezia?

Nik uste dut niretzat bakarrik ez, zumaiarentzat dela gauza berezia. Nik ez dut ulertzen Gabonik Gabon korurik gabe. Nire bizitza osoan behin edo bi aldiz bakarrik ez naiz gertatu Gabonetan Zumaian eta niretzat gabonik tristenak izan ziren. Hamazazpi urte nituela hasi nintzen

kantatzen Gabon koruan, beraz 37 urte daramatzat koru horretan, ia bizitza osoan, eta ez balitz aterako faltan botako nuke izugarri.

Nik ez dut ulertzen Gabonik Gabon korurik gabe"

❑ Hasi zinen garai hartan nork zuzentzen zuen ?

Jeronimok zuzentzen zuen eta 25 urtez bete zuen lan hori. Nik guztietan ez nuen kantatu, baina ia-ia. Nik neuk 15 urte daramatzat koru hori zuzentzen, beraz ia 40 dira.

❑ Adin askotako jendeak hartzen du parte...

Beno, hemen guraso eta seme-alabak, aitona-amona eta bilobak ikusten dira, denetik...

❑ Eta nola moldatzen zara guztiak gustura usteko?

Ni ez naiz gazteak beste modu batera tratatzearen aldekoa. Gazteak badakite zer den ona eta txarra. Pertsona normalen modura hartu behar dira. Askotan edozer gauzetarako tratamendu berezia ematen zaie baina orokorrean ondo ulertzen dute dena. Baina hori bai, lehenengo egunetik arauak jarri behar dira. Izan ere, jende asko da eta ez baduzu planteatzen normatiba txiki bat, ixilik egoteko edota elkar errespetatzeko ez du ondo funtzionatzen. Normalean ondo errespetatzen dute elkar eta ez da arazorik sortzen, sekula ez dut "bronka" bat bota eta hori ni zalea naizela.

❑ Zenbat jende hartzen du parte gaur egun?

Orain 150 inguru ateratzen gara, aurten ez dakit zenbat izango garen baina aurten ere antzera ibiliko garela iruditzen zait.

IHINTZA
taberna

Tf: 800473

Urtiaga y Gasset, 3

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea Tel. 861523

❏ Batzuk esperientziadunak dira, beste batzuk ez. Nola moldatzen zara denak bat egiteko?

Koruan bakarka ez gara ezer, besteekin bat eginda bai. Badira urtero ibiltzen direnak, eta berriak etortzen direnean integratzen joaten dira. Gainera "beteranoen" aldetik nabari da berriei laguntzeko gogoia. Azken finean denok egiten dugun lana da, nik hori bideratu eta zuzendu baino ez dut egiten.

❏ Errepertorio aldetik, kanta beraiek abesten al dituzue urtero?

Urtean abesti bat gehitzen diogu errepertorioari. Urtero 15 kantu abesten ditugu. 15 horietatik bat berria da, bestea joan den urtean ikasitakoa, bestea aurreko urtean ikasi zena eta beste batzuk tipikoak dira eta urtero kantatzen dira, baina esan daiteke errepertorioa berritzen joaten dela. Abesti bat ezik beste guztiak euskaraz abesten ditugu, baina esan behar da musika ez dela hemengoa, nazioartekoa baizik.

❏ Zein dira gehien gustatzen zaizkizunak?

Batzuk oroitzapen gehiago ekartzen dizkirate baina abesterako orduan ez dut lehentasunik. Nik gehiago apreziatzen dut abestia prestatzen ari naizenean ikasten dutenean baino, baina ez nuke bakar bat bereiztuko. Nik egia esanda kantatzen beti gozatzen dut. Badira egunak entseietara hotz samar joaten naizela baina iritsi orduko lanean "a tope" hasi, bat-batean berotu eta pultsazioak 190ra igotzen zaizkit.

❏ Edonork hartu al dezake parte Gabon koruan?

Bai jakina, baldintza bakarria belarri pixka bat edukitzea da, bakar batek beste 149ren lana izorra baitezake. Horrelakoetan nahiago izaten dut argi hitz egin lehenengo egunetik.

"Nik ez dut ahotsa ona exijitzen, ahotsa ez baita garrantzitsuena abesteko, belarria baizik. Ahotsa egin egiten da, beste guztia bezala"


❏ Igartzen al duzu horrenbeste jende artean, baten bat "desafinatzen" ari dela?

Segituan, baita aldamenekoak ere. Zein zonatan gertatu den ere igartzen dut eta San Pedro koruan bada, baita nor izan den ere. Normalean jende berria koruko baten batek ekartzen du eta hark gutxi gorabehera badaki nor ekartzen duen. Nik ez dut ahotsa ona exijitzen, ahotsa ez baita garrantzitsuena abesteko baizik eta belarria. Ahotsa egin egiten da, beste guztia bezala.

❏ Nola egiten duzue parte-hartze deialdia?

Bi modutara egiten dugu. Urtero parte hartzen dutenei eskutitza bidaltzen zaie eta bestetik egunkarrietan, Musika Eskolan, Parrokian eta abarretan zabaltzen dugu informazioa.

Helburua Gabon koruak abestea da eta hori lortzeko ezinbestekoa da jende berria hurbiltzea. Parte-hartzaileen kopurua mugatzea kaltegarria litzateke. Izan ere, batzuk utzi egiten dute eta horiek ordezkatzeko jende berria behar da.



❏ Gabon koruaz gain, "Beheko plaza" abesbatza (jubilatua) eta San Pedro abesbatza ere zuzentzen dituzu. Ez al da lan asko?

Lan asko eta gutxi izatea oso erlatiboa da. Zerbait gustukoa baduzu eta herriarentzako lan egiteko kontzientzia baldin baduzu gustura egiten da. Nik beste aukera batzuk izan ditut, Orfeoia adibidez, baino nahiago izan dut herriarentzat lan egin. Horretara behartuta sentitzen naiz. Lan honetan hasi nintzenean, ez zegoen beste inor hori egingo zuenik eta konturatu nintzen alde eginez gero gerta zitekeela jarraipenik ez izatea. Harrokeria dirudi baina nik horrela bizi izan nuen. Beti saiatu izan naiz herriaren beharrei erantzuten, nire gaitasunen neurrian. Ezinbestekoa iruditzen baitzait.

❏ Nola ikusten duzu Zumaia musika mailan?

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilari eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908-143409

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760

Ikusten dut jende asko ari dela musika ikasten eta horrek poztu egiten nau. Beti esan ohi da Zumaian kantatzeko afizio handia dagoela baina zalantzan jartzen dut. Nik ez dut ezetzik esango, baino ikusita zenbat jende joaten den kontzertuetara.....

“Koruan bakarka ez gara ezer, besteekin bat eginda bai”

Zumaiaiko bandak jotzen duenean zenbat jende hurbiltzen da?... eta hori Euskadiko txapelduna dela. Ainhoa Arteta etortzen denean joatea oso ondo dago baina zer gertatzen da urte gutzian gabiltzanokin?...

■ Nola eta noiz hasi zinen zu musika munduan?

Nik txiki-txikitatik kantatu izan dut. Zumaian kantatzeko ohitura handia zegoen, eskolan eta elizan kantatzen zen eta han joaten ginen ume denak meza nagusira. “A tope” eliza, denak kantatzen. Apaiza hasten zen “Gloria” kantatzen eta denak bere atzetik. Ni akolitoa nintzen eta oraindik gehiago. Gero 12 urte nituela seminariora joan nintzen. Han hasi nintzen musika ikasten. Derrigorrezko ikasgaia zen eta egunero ordu betez kantatzen genuen. Hara joan aurretik ez ninduten onartu San Pedro ikastetxeko umeen koruan; ez bainintzen

fraile baten gustukoa. Baina seminariora joan orduko “solista” jarri ninduten. Seminarioko 3 “solista” zumaiarrak ginen. Erramun Egaña, Mutrikun parroko dagoena, Miguel Angel Aizpurua, San Telmo kalekoa eta ni. Orduan Zumaian izugarritzko giroa zegoen. 17 urterekin “seminariotik” atera, ikasketak amaitu eta Eibarren hasi nintzen lanean, bankuan. Gabon korura etortzen nintzen baina bestela musika zeharo ahaztuta nuen. Baina koruan hasi nintzenean, kantak ikasten Carlos Gorostolarekin eta, konturatu nintzen segituan ikasten nituela. Hori nahigabe barruan neukan eta zuzentzeko aukera sortu zenean, lanean hasi eta berehala ikasitakoa hor nuela konturatu nintzen. Hortik aurrera neure kasa landu dut, autodidakta modura. “Obserbadorea” ere banaiz eta ikasitako gauza onak kopiatzen saiatu naiz. Azkenik lana ere asko egin dut. Lanik gabe hemen jai dago. Uda musikalean eginiko ahots-teknikari buruzko ikastaroak ere asko lagundu didate eta horiei esker orain sekulan ez naiz nekatzen kantuan. Niretzat izugarritzko “deskubrimendua” izan zen.

■ Zein abeslari duzu gustukoen?

Uff!! ni egia esanda ez nintzateke hiru tenoreak entzutera joango. Nik uste dut hirurak batera oso gaizki

kantatzen dutela. Nire ustez, eh!! Ni bakarka Pavarotti eta Placido Domingo entzutera joango nintzateke, hala ere, ni ez naiz bakarlariren aldekoa. Gustatzen zaizkit baina nahiago dut koro bat entzun, baita txarra baldin bada ere. Niri musika dena gustatzen zait baina korala batez ere. Demasa da.

■ Kantatzen al duzu etxean, dutxan edo kotxean?

“Kantidadia”. Batez ere kotxean. Kotxean bakarrik noala asko kantatzen dut, eta etxean ere bai, zerbait prestatzen ari garenean eta semearekin. Orain Oviedoko bandaren grabazio batean hartu behar dugu parte, Aragoiko Jotak kantatzen.

■ Amaitzeko, zer prestatu duzue abendurako?

San Pedro abesbatzak 2 aldiz kantatuko du abenduan, hilaren 8an, Amabirjin egunean eta Eguberri egunean. Jubilatua berriz, nazimentua hogarrean jartzen dutenean eta Gabon korua, urtero legez Gabon egunean izango da kalean. Ah! eta ez ahaztu noizean behin eskuak poltsikotik ateratzea.

◀ ANE OSA

Ur-gintza

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
 GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
 ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
 SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148062
 20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
 78 postakutxa

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
 Errebelatzeak
 Kamarak
 Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ZALLA

Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
 * otartekoak
 * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00


Gipuzkoako Foru Aldundia
 Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
 Tel. 143058







Maria Zendoia

Bai, behin akordatzen naiz nola hilabete osuan egunez elurra eta gabez izotza egin zuen.



Mari Tere Osa

Hamasei urterekin orain baino hotz gehiago pasatzen nun, ze presumida nintzen eta erropa gutxi jazten nuen hotza egiten zuenian.



Ainhoa Mendizabal

Ezagutuko genun, baina aurten ezustekoan harrapatu gaitu.



Edurne Arrieta

Ez, elurra egin izan duenian bakarrik pasa det orain adinako hotza.



Alfonso Garcia


Bai, Urbasan bizi nintzenian. Nire ustez egiten ari den hotza ez da exajeratua.

Inoiz ezagutu al duzu orain adinako hotza egin duen garairik ?



Mari Mar Martinez

Ez, ze gau osoa erropaz beterik nago: polarra, kamisetak... Egun ona egitera ohituta geunden eta derrepente etorri da txarra.



Marina Morán

Negua hasi denetik izoztua nago. Hotz asko egiten du, eta urtetik urtera gehiago.

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH
Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK
Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

ITZURUN
KIROLAK
Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

Errepidetik lokatzetara

Zumaiarrek ziklo krosako denboraldiari ekin diote

Udazkena eta negu parte iristea-rekin batera, errepedeko txirrindularitzak ziklo-krosari pasatzen dio lekukoa. Bat bukatu eta bestea hasi, nahiz eta azken urteetan ziklo-krosaren denboraldia nahiko itxuragabetuta geratu den. Federazioek, antolatzaileek eta ondorioz txirrindulariek beraiek ere interes gutxi jarri dute ziklo-krosean eta diru gutxi mugitzen zenez, askok hau utzi eta beste zerbaitetan aritu dira.

Aurtengoan ordea bazirudien gauzak berriro bere onera etorri zirela eta poliki-poliki kirol espezialitate honek bere lekua hartzen zihoala, lasterketak ere askoz gehiago antolatu direlako. Baina azken momentuan, federazio, antolatzaile eta txirrindularien artean gora behera bat baino gehiago izan da. Gipuzkoan eta Bizkaian ez dira konpondu lasterketak egutegian kokatzeko orduan eta desadostasun hauek tarteko, Gipuzkoako Federazioak bertan korritu beharreko lasterketa guztiak bertan behera uztea erabaki du.

Beraz, berriro kirol modalitate honek maldan beheko bidea hartu du nahiz eta zumaiarren kasuan, erabaki honek konpetitzeko garaian eragin gehiegirik ez izan. Penagarria da Gipuzkoan historikoki hainbesteko tradizioa izan



Ezkerretik eskubira eta goitik behera: Igor Beristain, Gaizka Gonzalez, Ander Odrizola, Oier Egaña, Mikel Aizpurua eta Patxi Igartua.

duen kirol bat egoera horretan egotea. Zumaiako txirrindulariek adierazi dutenez, lasterketak korritzera urrutirago joan beharko dute, Bizkaira gehienbat, baina hau ez da eragozpen handia izango.

Aurten, bi denboralditan ziklo-krosean aritu gabe egon ostean, Igor Beristain berriro bueltatu da espezialitate honetara eta momentuz behintzat, oso ondo aritu da jokaturako lasterketan. Parte hartu duen guztietan lehenengo postuetan ibili da eta atzerritarrak alde batera utzita, momentuz David Seco bizkaitarra du arerio gogorrena, une hauetan behintzat zumaiarrak baino maila altuagoa duena.

Igorren esanetan, bere helburu bakarra ahalik eta hobe kien ibiltzea du "batez ere txapelketetan puntu-puntu egoteko ahaleginak egingo ditut". Ez du uste bi urte ziklo-

krosetik at egoteak eragin handia izango duenik. "Prestakuntza aldetik orain bi urte baino askoz hobeto nago; kilo gutxiago ditut eta gainera ilusio eta gogo handia daukat denboraldi borobil bat egiteko". Baina berekin batera, elite edo nagusien mailan, beste txirrindulari zumaiar bat izango da, Oier Egaña. Igorrek baino esperientzia gutxiago du baina berak ere itxaropen handiak jarri ditu denboraldi honetan; gainera, Galiziako etxe baten babesa izango du eta honek ere lasaitasun handia emango dio.

Jubeniletan, Iker Ortiz da seguruenik emaitza onak lortzeko aukera gehien dituenak; hala ere hor daude berekin batera, Mikel Aizpurua eta Gaizka Gonzalez ere. Kadetetan ere beste pare bat txirrindulari zumaiar izango dira. Alde batetik Beñat Alkorta eta bestetik, Patxi Igartua.

◀ IGOR URANGA

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingeleza . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es

Loredenda

JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKA

Erribera, 1 Tel. 860375

Joseba Aristi omendu dute arraun taldean egindako lanarengatik

Luis Mari Olasagasti "Luxia" da traineruko entrenatzaile berria

Joseba Aristik orain arte traineruko entrenatzaile lanetan aritu denak, kargu hori utzi eta talde teknikoaren barnean kokatuko da. Arraun munduan betidanik murgilduta egon den gizon honek, kirol hau odolean darama eta urte piloa da Aita Mari Arraun Taldean dabilela. Gazte-gaztetandik hasi zen patroï bezala eta horrela jarraitu zuen urte askoan; ondoren entrena-tzailea izan da eta aurrerantzean ezkutuko lana egiten segituko du.

Laburrak

Gabonetako txapelketak

Aurten ere, Eguberrietan, Gabon Saria izena duen txapelketa jokatu da Udal Polikiroldegian. Futbito eta saskibaloï txapelketak izango dira eta hauez gain, xake txapelketa azkar bat ere antolatu nahi da. Beraz, jan eta edan festa handia izaten den data horietan kirol pixka bat egin nahi duenak badaki zer egin.

Xake txapelketa

Zumaiar zaletu batzuek antolatuta, egunotan xake txapelketa bat jokatzeko ari da Kabi Tabernan. Ez da ohikoa Zumaian xake lehiaketa bat burutzea, baina ez da lehenengoa izan, orain dela zortzi bat urte antolatu baitzen beste bat. Azaro amaieran hasi eta Gabonak bitartean luzatuko da.

Euskal Pilota Ikastaroa

Azaroaren 28an amaitu zen euskal pilotaren inguruan Zumaian eskaini den ikastaroa. Kurtso honetan, euskal pilotaren inguruko hainbat gai jorratu dira: historia, oraina, geroa, pilotan ikasteko eta irakasteko prozesua eta beste hainbat gauza. Urola Kosta Elkartek antolatuta, Ikaspilota elkarteko irakasle titulatuek eman dute ikastaroa eta beraiek esan bezala, "helburua pilotaren inguruan euskaraz egingo duten monitoreak ateratzea izan da". Klase teorikoekin batera, praktikoak ere eman dira. Ikastaroan, Urola bailarako gizon-emakumeek hartu dute parte.

Azaroaren 28an, Aita Mari Arraun Elkartek ondo baino hobeto merezitako omenaldia luzatu zion Joseba Aristiri, hainbeste urtean arraunari eskaini dion dedikazio guztiagatik. Aurrez, aurtengo traineru denboraldian Telmo Deunak lortutako bandera bakarraren bedeinkapena egin zen San Telmoko ermitan.

Datorren denboraldian beraz, zumaiarrek entrenatzaile berria izango dute, lehen ere urte askoan lan horretan jardundako Luis Mari Olasagasti "Luxia" hain zuzen ere. Gizon hau 1981etik 1993. urtera bitartean izan zen zumaiarren pestatzailea eta bere eskutik etorri zen Telmo Deunaren 80ko hamarkadako urrezko garaia. "Luxia" entrenatzaile zela lortu zuen Zumaiako traineruak bere lehenengo bandera 1981. urtean. Orain dela bost bat urte taldea utzi eta aurtengoan berriro Zumaia goi mailara eramaten saiatuko da prestatzaile berria.

Aipatu halaber, Joxe Enrike Mantrolak ere patroï lanak utzi egin dituela eta bere orde, Xabier Eizagirre getariarra arituko dela. Gazte hau

orain dela pare bat urte Getariako ontziko patroïa izan zen.

Denboraldia hasita

Amaitzeko, aspimarratzekoa da bai banku fijoan eta baita mugikorrean ere denboraldia hasi dutela beheko kategorietan. Banku fijoan, infantil mailan Beñat Arroïabe eta Xabier Albizu dira prestatzaileak; kadeteetaz Joxe Enrike Manterola arduratzen da eta jubeniletan berriz, Jose Jabier Osa da entrenatzailea. Nagusiekin berriz, lehen aipatu bezala, Luis Mari Olasagasti arituko da. Banku mugikorrari dagokionez, Estefan Urbietak arduratuko da maila guztietako arraunlariak prestatzeaz.

◀ IGOR URANGA

Jesuskoa
Jatetxea



Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIA



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Zumaiar ugari izan da Behobia-Donostia lasterketan

42 zumaiar iritsi ziren helmugara aurtengo Behobia-Donostia lasterketan, nahiz eta hauetatik bi deskalifikatuak izan ziren. Giro ona eta herrikoia nagusi izaten den karrera honetan, jendetza handia bildu izan ohi da eta oraingo honetan ere horrela gertatu da. Euskaldunak, atzerri-tarrak, gazteak, helduak, zaharragoak, denetarik ikusten da bertan eta asko dira itxura xeblearekin, mozorrotuta

irteten direnak ibilbideko 20 kilometroak osatzera.

Zumaiarren artean ere gero eta gehiago dira Behobia-Donostia lasterketa hau egitera animatzen direnak. Ondoren, helmugara iritsitako herritarren zerrenda eskainiko dizuegu, lortutako postua eta egindako denborarekin:



Izena	Postua	Denbora
Juan Manuel Lopez	279	1:16:40
Jaime Osa	407	1:18:40
Graxian Galarraga	500	1:19:59
Pejo Santamaria	506	1:20:06
Jon Sasiain	538	1:20:33
Roberto Martin	648	1:21:43
Martxelo Santamaria	663	1:21:52
Julian Igual	672	1:21:59
Juan Ignacio Alkorta	861	1:23:37
Iñaki Aizpurua	1199	1:26:16
Jon Ulazia	1205	1:26:18
Aitor Arakistain	1268	1:26:47
Joakin Parejo	1288	1:26:47
Mikel Yeregi	1407	1:27:36

Xabier Elizalde	1475	1:27:56
Joseba Romatet	1674	1:29:12
Jesus Ibaruren	1872	1:30:08
Vicente Royo	2057	1:31:16
Agustin Zumeaga	2492	1:33:53
Carlos Moreno	2880	1:35:53
Felix Aizpurua	2969	1:36:16
Jurgi Lafuente	2973	1:36:17
Xabier Elorza	2975	1:36:18
Joseba Etxabe	3010	1:36:31
Abilio Blazquez	3088	1:37:00
Jose Mari Albizu	3588	1:39:26
J. A. Urrestarazu	3742	1:40:08
Iñaki Vita	4060	1:41:39
Abundio Garcia	4292	1:42:34

Jose Luis Leon	4626	1:44:04
Teodoro Jimenez	4954	1:45:26
Iratzi Azkue	5348	1:47:07
Iñigo Alday	5477	1:47:36
Eneko Leonet	5532	1:47:51
Igor Mancisidor	5668	1:48:28
Ibon Azkue	5758	1:48:52
Aitor Manterola	6949	1:54:22
Iñigo Agirre	7061	1:54:51
Arritxu Urbieta	7428	1:56:52
Juan Grijalba	9209	2:10:14
Haize Galarraga	9977	2:45:00
(Deskalifikatua)		
Gorka Zendoia	9984	2:45:00
(Deskalifikatua)		

Hilabete honetan amaitzen da plairotako lehenengo fasea

Abenduaren 20an emango zaio amaiera plairotako txapelketako lehenengo faseari. Oraindik jardunaldi batzuk geratzen dira horretarako eta horietan argituko da zeintzuk izango diren Ligarako sailkapena lortzen dutenak eta zeintzuk Kopan arituko direnak.

Multzo bakoitzetik lehenengo bi taldeak sailkatuko dira eta gainontzekoek Kopako ligaxka jokatu dute. Orain arte ikusitakoaren arabera,

A multzoan Trapaia Taberna, Txikixa Pub eta Ipurbeltz taldeen artean dago sailkapena, Siete Maresek berriz dagoeneko ez du zereginik.

Bigarren multzoan berriz, Ederki Herri Biltokia eta Ekin Elektrizitatea Buitraker taldeak agertzen dira talde faborito bezala, nehiz eta oraindik partidu batzuk jokatzeko dituzten. Bukatzeko, hirugarren eta azken multzoan gauzak ez daude batera argi. Hiru Ezkur taldeak, iazko txapel-

dunak, Xolskaerren aurkako neurteta galdu zuen, baina hala ere ez du arazo gehiegirik izango sailkapena eskuratzeko. Basterrikalde eta Xolskaer taldeek ere sailkapen horren bila gogor borrokatu dute. Axier Kirolak taldea berriz, badirudi aurtengoan aurreko urteetan baino kaxkarrago dabilela eta, ia ezinezkoa du Ligarako txartela eskuratzeko.

◀ IGOR URANGA

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853



KABI
TABERNA - ZUMAI
Tel. 143379

BALEIKE

1998ko abendua, 52. zenb.

Euskal Herriak BAI EUSKARARI

Aurtengo udazkenean onddo beltzak baino dexente gehiago agertu dira egunotan Kontseiluari buruzko berriak: egunkarietan, irratietan, kartelak, pegatinak, orritxoak... Jakingo duzu seguruena nola euskararekin lotutako gauza bat den eta beharbada aditza izango duzu hilaren 26an ekitaldi erraldoi berezi bat ere antolatzen ari direla. Dena baldin badakizu bejondeizula, badakizu egin beharrekoa zein den, baina Kontseiluaren eta kanpaina honen nondik-norakoak ezagutu nahi badituzu datozen hamar minutuak gurekin igarotzera gonbidatzen zaitugu.

Zer da Kontseilua?

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA, izenak berak ederki adierazten duenez, euskararen inguruan lanean diharduten -eta dihardugun- talde, elkarte eta erakundeen bilgune moduko bat da. Osaera eta izaera anitzekoak izanik, euskarak garapen osoa izatea helburu duten 50 erakunde baino gehiagok osatzen dute Kontseilua. Bertan daude, esate baterako, AEK, Egunkaria, Euskara Elkartearen eta Herri Aldizkariaren Topagunea,

Bertsozale Elkarte, UEU, Ikastolen Elkarte, Argia eta beste hainbat erakunde. Euskararen Unibertsioa izeneko jardunaldi batzuetan elkartu ziren guztiak eta handik sortu zen denak bilduko gintuen erakunde bakar bat osatzeko ideia.

Kanpaina honekin euskararen erabateko garapena helburu duen prozesu bat abiarazi nahi da

Zein da Kontseiluaren helburu nagusia?

Kontseiluak, kanpaina honen atarian, euskararen egoera aztertu eta honako diagnosi hau egin du: XIX. mendean eta III. milurtekoan sartzeaz gaude-larik, euskararen etorkizuna ez dago erabat ziurtatuta. Honen aurrean euskararen erabateko garapena helburu duen prozesu bat abiarazi nahi da, lehenik eta behin plan estrategiko baten bitartez euskarak sektore guztietan bizi duen egoera zehatz-mehatz aztertuz, eta ondoren lehenta-

El acuerdo del siglo XXI
XXI. mendeko
akordioa
L'accord du XXI^e siècle

bai
euskarari

www/fajagi.com/baieuskarari

Abenduaren 26an baduzu konpromeso bat · El 26 de diciembre tienes un compromiso · Le 26 décembre tu as un engagement

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  KONTSEILUA

sunezko neurri normalizatzaileak zein diren finkatuz.

Zer egiten ari da?

Normalizazio prozesu horren arrakasta ziurtatu asmoz, gizarteko sektore guztiak ordezkatzan dituzten erakundeekin harremanetan jarri da Kontseilua: sindikatuak, enpresa erakundeak, finantza taldeak, kirolaren mundua, unibertsitatea, etab. Hauek herritarrentzat

nolabaiteko "motore" izatea eta gizarte osoan eragitea da. BAI EUSKARARI akordioa sinatzeko eskatu zaie eta orain arteko erantzuna bikaina izan dela esan daiteke, lankidetzaz eskatu orduko prestutasuna erakutsi baitute guztiak.

Aldi berean euskararen aldeko akordio soziala bultzatzeko kanpaina sendo eta indartsu bat egiten ari da Kontseilua. Kanpaina honen amaierako ekitaldia Euskal Herriko

bost estadiotan burutuko den ekintza erraldoia izango da. Abenduaren 26an, elkarrekin lotuta egongo dira Bilboko San Mames, Donostiako Anoeta, Gasteizko Mendizorrotza, Iruñeko Sadar eta Miarritzeko Aguilera. Lehenago, abenduaren 22an, urtero sasoi honetan jokatu ohi den partiduan, Euskal Herriko eta Uruguaiako selekzioak izango dira aurrez aurre, baina aurtengoan BAI EUSKARARI kanpainaren barne.

Batzordez batzorde, BAI EUSKARARI

Kontseiluak abian jarritako kanpainak ia bereganatu ditu Gipuzkoako herri, auzo eta txoko guztiak. Herri batzordeetan era guztietako talde eta pertsonak ari dira parte hartzen eta hortxe egon daiteke batzordeen funtzionamendu arrakastatsuen giltza.

Une honetan Euskal Herri osoan 160 batzordetik gora ari dira lanean, eta horietatik 50 inguru Gipuzkoan daude. Larraitz Mendizabal Gipuzkoako arduradunak adierazi digunez "kanpaina aurrera joan ahala gero eta batzorde gehiago sortzen ari dira, eta orain arteko jarrera oso ona izan da".

Batzordeetan edonork har dezake parte, anitzak eta irekiak dira, eta adin eta pentsamolde desberdinetako jendea biltzen ari dira herri gehienetan. Lankidetzaz hau benetan interesgarria da herri askotan, etorkizunera begira ere beste hainbat gauza lantzeko baliagarria izan daitekeelako.

Zumaian ere, BAI EUSKARARI

Gurean ere elkartu da kanpaina hau bultzatuko duen batzordea eta dagoeneko bi bilera egin ditu. Lehenbiziko deialdiak oso erantzun ona izan zuen eta 30 lagunetik gora bildu ziren Forondan. Herriko hainbat talde agertu da, lanerako prest: AEK

euskaltegia, EHE, Maria eta Jose eta Herri Eskolako ordezkariak, Bertso Eskola, Inpernupe, Pilota taldea, Eskubaloi taldea, Zumaia Bizirik, erreflexoterapia taldea, Ostarrena, Baleike bera, eta beste hainbat talde.

Propaganda banatu, eragile sozialekin hitz egin, amaiera ekitaldirako giroa berotu, ikuskizunak prestatu... oraindik ere asko da egiteko dagoena, eta laguntzeko prest baldin bazaude batzordeak eskertuko du zeure lanerako gogoa.

Amaitzeko, ez ahaztu agenda eta egutegi guztietan 26a gorri inguratu eta eguna iristean Anoetara joatea!

◀ XABIER AZKUE

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean
- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabiltza
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

gidatzeko baimen guztiak



TXOKO
T
A
B
E
R
N
A



Artadi auzoa
Tel. 862189



- J * Eguneroko bazkaria
- A * Pintxo eta bokatak
- T * Koadrilentzako menu bereziak
- E * Kuzuelitak eta plater konbinatuak
- X
- E
- A

kalari

Erribera kalea, 16
Tel. 862517



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

KUKUTZ
serigrafia

paperezko poltsak dauzkagu dendarientzat
zure diseinuarekin koloretan

Baltasar Etxabe, 7 Tel. 943 86 05 69

Urre gardena (eta II)

Datorren mendean egongo den ur eskasiari aurre egiteko mundu mailako estrategia bat ezinbestekoa izango da



Aurreko zenbakian ura produktu garestia bihurtzen ari dela esaten genuen, gero eta urriagoa delako Lurreko hainbat herrialdetan. Eskasia horren arrazoiak aipatzen genituen –populazioaren hazkuntza, ureztapenean oinarrituriko nekazaritzaren zabaldunea, kutsadura...– Oraingo honetan, NBEk (Nazio Batuen Erakundea) arazo honen gainean eginiko txostenaren ondorioak eta proposamenak ikusiko ditugu.

NBEren aurreikuspenen arabera, 2025. urtean Lurrak 8.300 milioi biztanle izango ditu, hau da, orain baino 2600 milioi gehiago. Gainera, jendetza gehiena gaur egun garapen bidean dauden herrialdetako hiri handietan bilduko dira, jadanik gaur egun ur baliabideen gain presio handia eragiten duten inguruetan, alegia. Presioa handitu egingo da, ur gehiago kontsumituko delako modu zuzenean zein zeharka. Nekazaritzan gaur egungo joera mantentzen bada, uraren erabilerak gora egingo du hainbeste jenderi jatekoa eman ahal izateko. Berdina esan daiteke industria garapenari buruz.

“Diru gutxien dutenak urik gabe geldituko dira, eta hori ezin da onartu, ura, angulak ez bezala, ezinbestekoa baita bizitzeko”.

Honez gain, aldaketa klimatikoa dela eta, itsasoko uraren mailak gora egingo dela aurreikusi da. Horrek esan nahi du ur gazi gehiago eta geza gutxiago egongo dela Lurrean.

Beraz, neurririk hartzen ez bada, 2025. urtean munduko populazioaren erdiak arazo handiak izango ditu bere beharrak asetzeko. Ur eskasia lurralde pobreenetan gertatuko dela kontuan izanda, ez dute panorama ederra aurretik.

Azkenean ura merkatal ondasun bihurtuko da

Tamalgarría bada ere, hemendik aurrera kontzeptu ekonomikoen bitartez neurtu beharko dugu uraren balioa. Eskariak eskaintza gainditzen duenean, ura merkatal ondasun bihurtuko da –bihurtu da–. Uraren erabiltzaileen arteko lehia sortzen da –kontsumitzaileak, nekazariak, industriak...– eta uraren prezioak gora eta gora egiten du. Prozesu honen

ondorioa zein da? Diru gutxien dutenak urik gabe geldituko direla, eta hori ezin da onartu, ura, angulak ez bezala, ezinbestekoa baita bizitzeko.

Egoera honi aurre egiteko NBEk mundu mailako estrategia bat proposatzen du. Hiru ardatz nagusi ditu bere proposamenak:

- 1.-Jarrera aldaketa: Ezinbestekoa da jende guztiak onartzea ura balio handiko ondasuna dela, eta bizitzarako ezinbestekoa.
- 2.-Datu fidagarrien bilketa: Lekuan lekuko egoera aztertu behar da ahalik eta modu zehatzenean gero erabaki okerrak ez hartzeko.
- 3.-Kudeaketa moduak aldatu: Kontsumo zuzena, nekazal produkzioa eta kutsadura dira presio handiena sortzen dutenak, eta hiru arlo hauetan kudeaketa hobetu beharra dago.

◀ GORKA ZABALETA



AIZPURUA

LIBRURUEN DENDA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

* Eskola eta bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422

abendua

EITB TRIKITIXA SARIA-ren
III. sariako lehen kanporaketa.
▶ Abenduak 5, larunbata.

DIPOSITIBA EMANALDIA

Nekane Intxaustiren "Ama lurraren sumina"
▶ Abenduak 10, osteguna, arratsaldeko 7etan
Forondan

ANTZERKIA

Ados antzerki taldearen "Desperados". Umore beltzez betetako antzezlan, batik bat gazteentzat.
▶ Abenduak 11, ostirala, gaueko 10etan
Aita Mari aretoan

MUSIKA ESKOLA-ko urte amaierako saioak.

▶ Abenduak 15 eta 16
Ubillos Musika Eskolan

PIANO KONTZERTUA

Juan Karlos Irizar musikariaren azken diskoaren aurkezpena.
▶ Abenduak 19, larunbata, iluntzeko 8etan
Forondan

SANTO TOMAS EGUNA

Arratsaldez, ikastetxeen jaialdia eta trikitilarien kalejira.
▶ Abenduak 21, astelehena
Beheko plazan

BERTSOLARI GAZTEEN GABONETAKO SAIOA

▶ Abenduaren 23an, gaueko 10etan
Aita Mari aretoan

GABON KORUA-ren kalejira eta 6etatik aurrera **Jaiotza ibiltaria**.

▶ Abenduaren 24an, arratsaldez

MUSIKA BANDA-ren
Eguberri Eguneko kontzertua

▶ Abenduak 25, ostirala, eguerdiko 13:00etan
Maria eta Jose aretoan

KONTZERTUA

Javier Arrillaga
▶ Abenduak 26, larunbata, arratsaldeko 8etan
Forondan

GABONETAKO PARKE BEREZIA

gaztelu puzgarriak, trena, karrak. (eguna ez da ziurra, baina garaiz iragarriko da)
▶ Abenduaren 28an
Beheko plazan eta frontoian

BIZARZURI

etorriko da haurren eskutitzak jasotzera. (Txepetxa elkarteak antolatuta)
▶ Urtarrilaren 3an

ERREGREEN ZAMALKADA

▶ Urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 6:30etan hasita.

MENDI IRTEERAK

Inda Mendi elkarte. (Izenematea: Mertxe argazkidendan)
Goiz buelta: Deba - Arno - Mutriku
▶ Abenduak 6, igandea
Goiz buelta: Deskarga - Landarratx - Antzuola.
▶ Abenduak 13, igandea

X. NATUR JARDUNALDIAK

Ekitaldi bereziak: erakusketa Oxford-en, hitzaldiak...
▶ Abenduaren 26tik, urtarrilaren 10era

GABONETAKO ESKULAN TAILERRAK

3. mailatik gorako haurrentzat
▶ Abenduaren 12 eta 19an.
Ludotekan

ERAKUSKETAK

• **Inprentaren historia**, maketa erakusketa.
▶ Abenduaren 1etik 18ra
Forondan
• **Euskal Herriko Otargintza** (Kutxa fundazioaren babesean).
▶ Abenduaren 10etik 20ra
Oxford aretoan

LIBURUTEGIAREN ASTEA

• **Koldo Ameztoi** ipuin kontalariaren saioa, 12 urte bitarteko haurrentzat.
▶ Abenduak 11, arratsaldeko 5:30etan
• **Pello Añorgaren** saioa, 8-10 urtekoentzat.
▶ Abenduak 14, arratsaldeko 5:30etan
• **Omo** taldea, 16 urtetik gorakoentzat.
▶ Abenduak 18, arratsaldeko 7etan
Forondan

GABONETAKO I. BERTSOPAPER LEHIAKETA

• Lehiaketa honetan 14 urtetik gorako zumaia guztiek har dezakete parte.
• Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake eta **gaia** honakoa izango da: "ZUMAIA ETA ARRAUNA"
• Gutxienez 6 bertso egin beharko dira eta gehienez 10. Doinua eta neurria norberak nahi dituenak izango dira.
• Lanak **Foronda** kultur etxean aurkeztu beharko dira, 1998ko abenduaren 18a baino lehen.
• **Sariak** abenduaren 23an bertsolari gazteekin Aita Mari zinean egingo den saioaren amaieran banatuko dira.
SARIAK:
• Lehen saria: Txapela eta 25.000 pta.
• Bigarren saria: Oroigarria eta 15.000 pta.


Tel. 143278



Maite
ileapaindegia

KERASTASE
PARIS

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA



malaur

ZINE FORUM

Abenduak 17

El crimen desorganizado (I went down, 1997)

Zuz: Paddy Breathnach

Azken bi hamarkadetan irlandar zinea indartsu sartu da gure pantailetan. Alde batetik Irlandan jaio diren zinegileak aurki daitezke, hala nola Neil Jordan, Jim Sheridan, Pat O'Connor eta inor baino ingelesagoa baina izatez irlandarra den Kenneth Branagh. Bestetik, Irlandara hurreratu diren zuzendariak daude: Alan Parker, Stephen Frears, John Boorman, John Sayles... Kasualitatea izan daiteke baino hauen lanik onenak irla horretan eginikoak dira.

Hilabete honetan ikusgai izango dugun filmea zuzendari irlandar gazte baten bigarren lana dugu, *I went down* izenekoa (eta ahal bada behintzat, espainiar itzultzaileek jarri dioten izena ahaztea hobea). Filme honetan irlandar mafioso batzuen abenturak kontatzen dira; baina ez ezazue espero *El Padrino*-ren antzeko tragedia bat, gizarajo hauen jarraipenean umore beltza baita nagusi. Filme txikia baina txukuna, aktore ezezagun baina bikainak dituena.

Aipatzekoa da filme hau 1997ko Donostiako zinemaldian saritua izan zela.

Urtarrilak 14

Estación Central de Brasil (Central do Brasil, 1998)

Zuz: Walter Salles

Brasilgo zinea guretzako guztiz ezezaguna bada, filme honek argi pixka bat ekar lezake gure burura. Urte honetan Berlin eta Donostiako zinemalditan eskaini izan den filme hau, bi hirietan izan da saritua: Berlinen urrezko otsoarein eta Donostian gaztediaren sariarekin. Hitz gutxitan esanda, filme honek bi pertsonen, irakasle baten eta kalean bizi den haur baten elkarbizitza kontatzen digu. Emakumeak, idazten ez dakiten kaleko haurren izenean gutunak idazten ditu. Bizitza gehiegi ikusi duen emakume bat da, behea jota dagoena, baina haur hori ikustean...

1998 urteko filme errebelazio bezala hartu daiteke *Central do Brasil*. Filme intimista, sentsibiltate handiarekin egina, ikuslearen bihotzean sartuko dena.

Oharra: azken filme honen kontratazioa guztiz lotu gabe dago. Baliteke beste filme batekin ordeztu beharra izatea.

Zine klasikoaren txanda



Gabonetarako opari berezia preparatu du Ostarrena Zine Klub taldeak, abenduaren 29rako zine klasikoaren saio

bikoitz bat antolatu baita. Bertan, gaueko 9,30etan eta 500 pezetaren truke bi filme eskainiko dira: lehenik Nicholas Ray-ren "Johnny Guitar" eta ondoren Richard Brooks-en "A Sangre fría" izango dira ikusgai.

Ekintza honekin hainbat pertsonen eskaerari erantzun nahi izan dio kultur talde honek, ez baita jende gutxi izan, programazio arruntaren artean aintzinako filmeak jartzea eskatzen zuena. Hauentzako eta noski zinea maite duen edonorentzako aukera berezia da hau, filme hauek pantaila haundian ikustea ezinezkoa baita. Bi filme hauek dudarik gabe bi maisulan dira, zine munduko bi maisu handienetakoez eginak, bakoitzak bere arloan izugarriko filme bikainak egin dituztenak. Gainera bi pelikula hauek bakoitzaren onenak bezala hartu daitezke.

Lehena, "Johnny Guitar" ospetsua, western eta melodrama arteko filmea dugu. Nicholas Ray haundiak 1954 urtean eginikoa. Filme honekin Ray-ek McCarthysmoa (Hollywood-eko indar progresistaren zapalkuntza) salatu nahi izan zuen. Horretarako zer hobeto sheriff-a eta moral aldetik garbi asko dauden pertsonaiak filmeko "gaiztoak" bihurtzea baino, eta bestetik legearen beste aldean dauden pertsonaien alde jartzea. "Johnny Guitar" hainbat arrazoiengatik filme mitikoa da: erromantikotasun itzel horregatik, galtzaileak inork baino hobeto erretratatu dituen zuzendari magiko honengatik (ondoren "Rebelde sin causa" ezaguna egin zuen), aktore izugarri hoiengatik (Joan Crawford, Sterling Hayden, Ernest Borgnine, John Carradine), kolorearen erabilera originalagatik, musikagatik... denagatik. Bigarren filmea liburu oso ezagun batean oinarritua dago, Truman Capote-ren "Odol hotzean" liburuan alegia, eta hau benetan gertatutako hilketa batean oinarritzen da. Richard Brooks-ek istorio hau hartu eta heriotz azigorren aurkako manifestu ikaragarri bat burutu zuen. Aktoreak ezezagunak dira, baina filme honetarako beharrezkoak, ezin baidakara hauen sufrimenduarekin identifikatu Hollywood-eko aurpegi politak ikusita. Zinegile progresista honek inongo errukirik gabe erakusten digu heriotzazigorren erokeria. Filme sakona, sentsazionalismo apurrik ere ez duena, zuzendaritza lana miresgarria eta zuri-beltzeko fotografia zoragarria duena. Bi hitzetan maisulan bat.

Saio honekin espero den arrakasta izanez gero, litekeena da urteko programazioan zine klasikoak tarte bat izatea, eta zergatik ez, hurrengo opor batzutan beste saio bikoitz bat izatea. Ea goazen denok, oraingo zinearekin zerikusirik ez duen zinea ikustera. Ez zarete inondik inora damutuko.

ILE APAINDEGIA

**Merca
Uranga**

Etkezaretara, 19 Tel. 862342



ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda Aldizkariak
Fotokopiak Enkuadernazioak
Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

Durangoko azoka

Azkenean iritsi da Durangoko azoka!! Euskal liburu eta diskoen azokak aurtengoan 33. aldia beteko du eta indartsu dator. Argitaletxeak burubelarri ibili dira azken unera arte dena prest egon dadin, eta urtero ohi den moduan olatua izugarria izan da. Liburu eta diskoen aurkezpenek egunkarietako kultur orrialdeak bete dituzte eta musika esparruan murgilduz, jarraian duzuen zerrendan ikus daitekeenez, proposamen ugari ditugu.

Agorila

- 1.- Arrantzaleak: **Itsaso zabalean**
- 2.- Zapozain: **Zangoz jo Apo!**
- 3.- Kukumiku: **Arbasoak**
- 4.- Caroline Philips eta Mixel Ducau

Aztarna

- 1.- Alboka: **Bi beso lur**
- 2.- Joxan Goikoetxea: **Goazen lagun**

DDT

- 1.- Skandalu: **Herri sofitua**
- 2.- Keats: **Keats**
- 3.- Brutal Melody: **Brutal Melody**

Elkarlanean

- 1.- Andra Mari Abesbatza: **Oi Betleem**
- 2.- Amaia Zubiria: **Hou Pitxu Hou!**
- 3.- Iker Goenaga: **Soinugorri**
- 4.- Oiartzungo kantu zaharrak
- 5.- Benito Lertxundi eta EOS: **Auhen**

Sinfonikoa

- 6.- Maixa & Ixiar: **Solasin**
- 7.- Etxamendi eta Larralde: **Antologia**
- 8.- Euskadi Gaztea Bilduma: **Kolore Gaztea**

Esan Ozenki Records

- 1.- Akauzate: **Ur gardenak**
- 2.- Joxe Ripiau: **Paradisu zinema**
- 3.- Deabruak Teilatueta: **Deabruak Guarda**
- 4.- Kortatu (VSH)
- 5.- Lif: **Lif**

Gaztelupeko Hotsak

- 1.- Bide ertzean: **Bide ertzean**
- 2.- Joseba Tapia - Koldo Izagirre: **Apoaren edertasuna**
- 3.- Morau: **Kantu galduak**

Gor

- 1.- Leihotikan: **Hemen ez da ezer aldatzen**
- 2.- Buitraker: **Lurrin makina**
- 3.- Urtz: **Lur gazian ametsak ereinez**
- 4.- Ost: **Salbuespena**
- 5.- Zea Mays: **Zea Mays**
- 6.- Hyssopus: **Hyssopus**

IZ

- 1.- Egan: **Kanta onenak**
- 2.- Txirri, Mirri eta Txiribiton: **Barre egin**
- 3.- 29. Tolosako abesbatza lehiaketa: **Tolosa 97**
- 4.- Xabaltx: **Zalantzak**
- 5.- Escolanía San Inacio: **Stabat Mater**

No Cd records

- 1.- Suso Saiz: **Katawira**
- 2.- Joxan Goikoetxea eta J. M. Beltran: **Beti ttun-ttun**

Oihuka

- 1.- Haurtzarrak: **Bihurrikerian**
- 2.- Nahi ta nahiez: **Selekxion**
- 3.- **OihukaTU** bilduma: Latzen, Brigada Slam,...

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK 929-55 05 74 telefonoan

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAYA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu ... mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Krol zelaien mantenimendua
- Txostenak ... gihakularitza teknika.
- Balazkoak

Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001

Iker Goenaga: SOINUGORRI




Soinugorri Iker Goenaga trikitilariaren bakarkako lehenengo lana duzu. Izenburuak dioen moduan soinu txikia da disko osoan protagonista eta trikitixaren ohizko erritmoak aurkituko dituzu: fandangoa, arin-arina, trikitixa, porrusalda...

Tradizioan oinarritutako diskoa da baina berritzailea, eta abesti gehienak (musika eta hitzak) Iker berarenak dira. Formato akustiko bat eman nahi izan dio, trikitixari, kitarrak, baxua eta perkusioak erantsiz (Beñat Barandiaran: kitarrak, Juanjo Cabezon: baxua eta Carlos Aranzegi: perkusioak).

Elgeta zenari eskaini dion disko honetan kolaboratzaile ezagunak izan ditu Iker Goenagak: besteak beste, Mikel Errazkin, Leturia, Maixa Lizarribar, Ixiar Oreja, Joseba Tapia, Mikel Laboa... eta Jean Phocas izan da aukeratu duen teknikoak. Trikitizalea bazara gustatuko zaizu.

Joxe Ripiau: PARADISU ZINEMA



Paradisu Zinema izenburua daraman hau zinema oinarritzat hartuz talde ezagun honek plazaratu duen hirugarren lana duzu. Haserako hirukoteari laugarren bat gehitu zaio eta honela geratu zaigu taldea: Iñigo Muguruza (baxua eta ahots nagusia), Jabier Muguruza (eskusoinua eta koroak), Sergio Ordoñez (bonboa, giroa eta koroak) eta Asier Ituarte (tronboia).

Ska eta erritmo beraz osatutako disko hau Kaki Arkarazoren ardurapean grabatu dute eta honako kolaboratzaileak aurkituko dituzu bertan: Amparo (Amparanoia), Spook & The Guay, Sorkun (Kashbad), Andoni Delirium, Mikel (BAP), Garazi Muguruza eta Milagros Gorostiza. Abesti gehienak Iñigo Muguruzarenak dira eta tartean Juan Carlos Perezen "Egun motela" abestiaren bertsio bat entzun daiteke. Negu hau dantzan bero-bero pasatzeko aproposa.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Barra birritan

Aurreko zenbakiko argazki zaharra barra-barra izenpetu genuen, barra zaharra olatuek nola zeharkatzen zuten erakutsiz. Oraingoa kontrakoa da, barrarik ez, olaturik ez eta begira gainera nolako itsasontziak genituen garai batean. Non ote ziren orduan astillerotan egiten ari diren ontzi moderno horiek?



TXAPARTEGIk emandako tarta **LEIRE eta UNAI ANTI**arentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, tabernarien arteko pintxo lehiaketa AEK-k antolatzen du.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! Berriz ere tartak ematen hasi gara!!!



Ze egunetan ospatzen da Santo Tomas?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, abenduaren 23a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

Rosi

garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

BELARDENDA SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA



BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

BALEIKE

1998ko abendua. 52. zenb.

Liburutegiko aukera berriak

Euskaraz

Ahotsak
Gutun ebatsia
Salataria
Oraingo gazte eroak

Mikel Hernandez Abaitua
Allan Poe
Joseph Conrad
Joxe Azurmendi



Gaztelera

Pura vida
Pequeñas infamias
El hereje
Viaje a Portugal
Manual de inquisidores

Jose Maria Mendiluce
Carmen Posadas
Miguel Delibes
José Saramago
Antonio Lobo Antunes



Haurrak/Gaztetxoak

Ez idolorik uki
Hotel sorginduko oporrak
Erloju mekanikoa
Esklabu zoriontsuen uharte



Brigitte Smadja
Thomas Brezina
Philip Pullman
Seve Calleja

agurrak

S^o:
Nahiz eta zorionak izan ez dik
sartzen, ez dek hobetzen.
Gol xixtrin bat sartzeko ere...
Ohartzen al haiz, TXIMA!!!

S^o:
kontuz ibili sudurreko 3. zulo txo bixi
horrekin. Nerbioso jartzen baita
momentu jakin batzuetan...
NO COMENT

S^o:
Flaber, ahaztu al den
egindako promesa?
Otsailean, al "BESUGO"
segun los italys.
ZORIONAK, HI-HAIZ-TA-ONENA!!

Mariano: nire bihotsak
gogoan zaitu.
SOR CITRÖEN




TALI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK 929-55 05 74 telefonoan

TXALAPARTA
OPARRIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAYA
GIPUZKOA Kalea, 33 0 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 96 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu
- mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kirazelaen mantenimendua
- Txostenak...
- aholkularitza teknikoa,
- Ekoizpenak


Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpintería metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

diseinua
+ zerbitzua
+ kalitatea

Amertze

ERRIBERA KALEA, 6
Tel. 943 86 17 07

markogintza

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA


BUTANO

PROPANO



zumaian sekula ikusi gabea

focus



Azkue

Estazioko kalea, 19 Tel: 943 86 14 33 / 608 67 62 72

